



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




aburu 'iritzia, ustea'	«Neskak ez zioen egia Juliusen aburuz .»	(104)
ahi 'irin egosizko ore jangarria'	«Mikelak ahi moduko jaki batez betetako katilua luzatu zion Juliusi.»	(66)
ahur 'eskuaren barruko parte'	«Belaunak flexionatu kokorika jarritz, bi eskuen ahurrek sortutako zulogunean hura hartu, eta tragoxka bat edan zuen.»	(40)
aingura 'itsasontziak finkatzeko tresna'.	«Bildu aingurak! »	(118)
aitzin 'aurretik'	«Berrito esaten dizut, utz gaitzazue libre eta alde egizue berandu izan aitzin .»	(81)
alabaina 'hala ere, haatik'	« Alabaina zer esan behar diezu?»	(12)
alajaina 'alajainkoa'	« Alajaina , nola liteke hōri?»	(22)
alpe 'alboa, aldea'	«...barrez hasi zen buruzagia, zaldia alpetan jo, azkona altxatu eta eraso zionean...»	(43)
amatatu 'iraungi, itzali'	«...komenigarriena sua amatatzea izango zen.»	(55)
apatx 'animalien hatzak'	«Hankak eta oinak sendoak zituzten. Apatxak zabalak.»	(50)
arbuia 'gaitzetsi, mespretxatu'	«...baina ideia sortu bezain laster arbuia zuen legearen eta ohituren kontra zegoelako.»	(15)
arestian 'orain gutxi'	« Arestian kanpamenduan ikusitakoak, borroka-zelaian Urdinak agertzean gerta zitekeenaz ideia zuzena eman zezakeen.»	(69)
arrapostu 'erantzun'	«Bien bitartean, neskak Juliušek jarritako galderari arrapostua eman zion.»	(45)
arre 'nabarra, beltziska'	«...bizitasuna ematen zioten itsaso kromatikoari, non uharteen moduan harri arre ilunezko sateliteak nabarmentzen ziren.»	(30)
arroila 'erretena, ubidea'	«Bertan haranak, mendilerroa, Nagusien gaztelua eta kanpamendua zegoeneko arroila markatu zituzten.»	(71)
asetu 'bete'	«Irratifrekuentzien banda aseturik egongo zatekeen bestela.»	(35)
azkon 'gezia'	«... Azkon luzeen bidez bultzatzen ziaten zaldi baten ondotik beste baten aldamenara.»	(32)
aztoratu 'asaldatu, matxinatu'	«Jakinahiak aztoratzen zuen Piarres eta alkateak besterik erantsiko ez zuen beldur zegoen.»	(12)
babazorro 'baba zakua / kokoloa'	«Nahikoa babazorro geldituko da berriro lanean hasteko.»	(104)
balentria 'kemen handiko ekintza'	«Orduko mentura eta balentriek ez zituzten jada Juliusen garaiko merkatariek erakartzen.»	(22)
belaki 'garbitzeko gai xurgatzailea'	«...muinoa metro bateko diametroko irekiune zirkularrez josirik zegoela ikusten zen, belakia bailitzan.»	(97)
beta 'astia'	«Ez zuen zorionaz gozatzeko betarik izan; buruan kolpe lehor bat sentitu eta bere begien aurrean gortina ilun eta beltza itxi zen.»	(77)
bidegabekeria 'gehiegikeria'	«Merkatariek ez dituzte normalean gerlariak hiltzen, baina bidegabekeriaren aurrean ezin dugu geldirik egon.»	(81)
biharamun 'ajea, ostea'	« Biharamuna kentzeko ez litzaioke gaizki etorriko—, gaineratu zuen Oihanak.»	(16)
bizkarroi 'besteren bizkar bizi dena'	«Eta bitartean, gure herria Nagusi deitzen ditugun bizkarroiak elikatzen...»	(60)




bolikara 'marfil tankerakoa'	«irribarre zabal-zabala jartzen zitzaien aurpegian, ondo moldatutako hortz zuri bolikarak ageria utzirik.»	(8)
boutade 'barregarrikeria, burutazioa'	«...esan zuen Juliusek barrez boutade moduan.»	(108)
deus 'ezer ez'	«Julius gainera ez zen gerra-gizona eta deus gutxi zekien gerrataktika eta metodologiari buruz.»	(69)
ekidin 'eragotzi, itzuri'	«Bera, Oihana eta Haritz Nagusien gazteluan sartuko ziren eta lurrutz zezan ekidingo zuten.»	(96)
endakatu 'berezko baloreak galdu'	«...harandar gizarajoen jakinduria ezaz baliatzen zen arraza endakatu hartakoek...»	(100)
erabakior 'erabakitze gai dena'	«"Planeta urrunegi dago oraindik datu erabakiorrik emateko.»	(35)
erpin 'zerbaiten punta, muturra'	«...etxea konikoa zela eta konoaren erpinean biltzen ziren hagek pareta osatzen zuen larru...»	(77)
estekatu 'lotu'	«Haritzen hatz indartsuek trebeziak askatu zuten porcyondarren eskuak estekatzen zituen larruzko lokarriaren korapiloa.»	(83)
ezpai 'duda, zalantza'	« Ezpairik gabe, komnigarriena suak amatatzea izango zen.»	(55)
ezponda 'soroetako aldapa ebakia'	«Lehentxeago bere semeak bezala, korrika jaitsi zuen Piarresek biderainoko ezponda .»	(116)
galburu 'gari burua'	« Galburu beteen horitasunak uzta bildua izateko prest izango zela adierazten zuen.»	(7)
gandor 'gangar, buruko ile multzoa'	«...besoak eta izterrak burdin sare itxiz estaliak zeuzkaten eta gandor gorridun kasko erdiesferikoa buru gainean.»	(41)
garabi 'zamak jasotzeko gailua'	«Sabaia altua zen eta zenbait garabi zintzilik ikusten ziren.»	(98)
gorako 'okada'	«...orearen zapore garratz higuigarriak gorakoa eragiten bazien ere.»	(84)
haga 'armazoiak sostengatzekoa'	«...konoaren erpinean biltzen ziren hagek pareta osatzen zuen larru edo oihalari eusten ziotela ohartu zen.»	(77)
haizakortasun 'maniatikotasuna'	«Harri eginik gelditu zen Julius, ordenadore hura teoriarik ez baitzegoen Lilianen haizakortasunez horniturik.»	(35)
halakreta 'koraza'	«Gizonetako bakoitzak harmarri moduko irudi bat pintaturik zuen halakretaren bularraldean.»	(79)
hausnartu 'oldoztu, gogoetak egin'	«...alkateak soroetariko bidean kontatutakoa hausnartzen ibili zen.»	(15)
hegi 'bazterra, ertza'	«Bidezidorrak hegi magalean behera egiten zuen, bailara aldera.»	(39)
higitu 'mugitu, zirkin egin'	«Basoak eskainitako babesa utzi gabe ahotsen iturbururantz ezkutaleku bila.»	(40)
hirugihar 'urdaia'	«...hartzen ohi zuena: arraultzeak hirugiharrarekin , kefesne beroa ogi xigortu eta gurinarekin.»	(93)
horditu 'mozkurtu'	«Ikuskizun paregabe hark zoratuta, horditurik bailitzen, utzi zuen.»	(31)
igaraba 'urtxakurra, ibaietako aberea'	«Erreka hartako animalien artean igarabak bakarrik berdin zezakeen, akaso, neskatxak igerian zuen grazia.»	(64)
ilgora 'ilargia handitzen denean'	«Tamaina ertaineko kolore marroizko sateliteak orbitatzen zuen. Ilgoran zegoen satelitea.»	(35)
ipurterre 'erretxina, urduria'	«Julius gizaseme ipurterrea zen eta denbora luzez ezer egin gabe ibiltzea ez zuen gogoko.»	(22)




irrika 'antsia, desira'	«...Urdinen eta Nagusien kontra borrokatzen laguntzeko irrika sortu zitzaion.»	(45)
iruzkin 'azterketa, analisisa'	«Ausartaren ordenadoreak ironiaz egindako iruzkina iritsi zitzaion orduan.»	(28)
iskilo 'arma'	« Iskiloak , zakurrean zeuden detektoreen bidez, Juliusek hatz- markak identifikatu behar zituen aktibatua izateko.»	(82)
itaun 'galde'	«Eta orain zer? — itaun egin zuen Haritzek.»	(98)
itu 'armaz jo nahi duzuna'	«Dena den, pirata madarikatu haien tiroak uste baino zehatzago jo zuen itua .»	(18)
itzuri 'alde egin / muzin egin'	«Baina, ur fresko eta gardena edatearen tentaldiari ezin izan zitzaion itzuri .»	(40)
jagole 'zaindaria, begiralea'	« Jagolerik ez zen inon ikusten eta edonor kanpamenduaren barneraino sar zitekeen inork ezer somatu aurretik.»	(52)
jatena 'janaria, jatekoa'	«Azkar eta ixilik irentsi zuten jatena ...»	(84)
jauzi-mauzika 'hara-hona saltoka'	«Gaztea jauzi-mauzika zebilen, labana begien parean, zaldizkoak apuntatzen zituelarik.»	(41)
jazo 'gertatu'	«Zer arraio jazotzen da?— galdetu zuen ozenki, lehenagoko agin- duak birtekleatu aitzin.»	(47)
jelosia 'mesfidantza'	«Batzuetan, harrotasuna jelosia bihurtzen zen, jai arratseko dantzan...»	(8)
jendilaje 'jendaila, bilau multzoa'	«Izarrarteko polizia inguru haiek pirata eta antzeko jendilaje libre izaten sutsuki arduratzen bait zen.»	(17)
kapera 'ziza eta ondoen gainaldea'	«Perretxiko batzuk ere topatu zituen. Oso politak ziren: kapera laranja kolorekoa eta zuztarra horia zeukaten...»	(40)
koitadu 'errukarria, adore gabea'	«Gure herri koitaduari hitzek, hitz arruntek, beldurra ematen diote.»	(59)
kokildu 'kikildu, bildurtu'	«Haritzek ez zuen erantzunik eman eserlekuak emandako izualdiak oraindik kokilduta itxuraz.»	(90)
kokorikatu 'orkatilen gainean eseri'	«Soroaren ertzeraino hurbildu zen eta kokorikatuz soro ertzeko galburu bat hartu eta esku artean aletu zuen.»	(115)
kokoriko 'kukubilka'	«Belaunak flexionatu kokoriko jarriz, bi eskuen ahurrek sortutako zulogunean ura hartu eta tragoxka bat edan zuen.»	(40)
kurrika 'orrika, trukesa'	«Urdinek itxiak izango zituzten kurrikaren hortzak eta poltsan harrapaturik harandar guztiak.»	(70)
kuttun 'maite, moñoña'	«Piarresek bere kuttuna musukatu zuen agurrari erantzunik eman aurretik.»	(9)
lagin 'erakuskaria, mostra'	«"Atmosfera arnasgarria. Lagin biologikoetan ez da organismo patogenorik topatu."»	(37)
laket 'atsegin'	«...oihu ixilak bihotza urratu zion eta sakon-sakonean galdutako kausak laket zituen kixotea zen.»	(42)
langa 'langeta, trabesa'	«...alkatea eta Piarres hurbiltzen ikusi zituenean zutitu eta langaraino joan zen atea zabaltzera.»	(13)
lats 'ibai txikia, erreka'	«Makal eta sastraka batzuen artean lats ertzeraino hurbildu zen.»	(64)
lurrutzi 'lurra utzi, aireratu'	«Dardar kasik igertezinez, ixiltasunez eta leunki, txanelak lurrutzi eta aireratu zen.»	(88)
makal 'ibai ertzeko zuhaitz mota'	« Makal eta sastraka batzuen artean lats ertzeraino hurbildu zen.»	(64)



marro 'iruzurra, amarrua'	« Marrorik noiz egingo zain egongo da beti.»	(109)
martinen egia 'begi bistakoa'	«Guztiaren bueltan zaudela uste duzunean (...) —pentsatu zuen ozenki, Martinen egia esaten...»	(28)
matxura 'narriadura, hausketa'	«"matxura nabigazio-sistema nagusian" zioen mezu argitsuak ñir-ñir egiten segitu zuen.»	(17)
meatzari 'meategi langilea'	«Bera merkataria zen, eta ez meatzaria .»	(29)
mentura 'arriskuzko pasadizoa'	«Orduko mentura eta balentriek ez zituzten jada Juliusen garaiko merkatariak erakartzen.»	(22)
miatu 'arakatu'	«Julius txoko guztiak arretaz miatzen hasi zen.»	(106)
miru gorri 'hegazti harraparia'	«... harrapakin bila planeatzen ari zen miru gorriaren buru urdinxkan pausatu zituen Piarresek begiak...»	(7)
morroitz 'esklabutza'	«Hainbat mendetan morroitzan ohitutako nekazari haiek gerrarako prestatu behar zituen eta ez zekien nola.»	(69)
murru 'horma sendoa'	«Julius erosoago hasi zen sentitzen, elkarren arteko murrua erortzen ari zela baitzirudien.»	(55)
naharo 'ugari, sarri'	«Urre koloreko aleak lodiak eta naharoak ziren, ondo landutako lur oparoak ematen ohi dituen horietakoak.»	(115)
nardagarri 'nazkagarria'	«Sarraski nardagarria egin zuen Juliušek, zuzen-zuzenean eta denek batera eraso eginez ez baitzuten zaldizkoek aukerarik...»	(43)
nirbana 'jainkoarekin bat egin'	«Ustegabeko dardarak nirbanatik jaitsiarazi zuen.»	(31)
nitxetorren 'nentorren' (hikan)	«Peruenetik nitxetorren Oihana topatu dudanean.»	(9)
ohizkanpoko 'ezohizkoa, usadiozkoa ez dena'	«Irratifrekuentzietan aktibitate ohizkanpokorik ez", zioen pantailak.»	(35)
ointzar 'zutabe handia'	«Herrietako alketeak bakarrik pasa zitezkeen dorrearen lau ointzarrek eratzen zuten arkuaren azpitik...»	(12)
oparo 'ugaria, joria'	«Uzta ederra zetorren eta azken urteetako oparoena izango zela begibistakoa zen.»	(7)
orbain 'mantxa'	«Begi moduko orban ilun handi bat zeukan ekuatore aldean.»	(28)
ordekatsu 'lurralde lau eta zabala'	«Julius pendizaren goikalderaino iritsi zenean, haran ordekatsu liluragarria topatu zuen.»	(51)
orojakile 'jakituna, dena dakiena'	«Horra orojakilea! »	(19)
ostean 'ondoren'	«Amaitu ostean , gizon-emakume prestuenei zuen suaren ingurura etortzeko esaiek.»	(69)
otu 'bururatu'	«...bere umeak aldamenen izango zituelarik zainduko zituela begien aurreko galsoroak otu zitzaizkion.»	(8)
ozenki 'ahots altuan'	«Zer arraio jazotzen da? —galdetu zuen ozenki , lehenagoko aginduak birtekleatu aitzin.»	(47)
paniko 'izuikara, laborria'	«Kanpamendua panikoak hartutako eroetxe bilakatu zen supituki.»	(68)
patu 'zoria, azturua'	« Patua , izan zitezkeen erantzun bakarra.»	(29)
pendiz 'aldatsa, aldapa'	«Julius pendizaren goikalderaino iritsi zenean, haran ordekatu liluragarria topatu zuen.»	(51)



perlesia 'paralisia'	« Perlesiak jota baileuden gelditu ziren bi harandar gazteak; begiak zabal-zabalik eta keinurik egiteke.»	(87)
pragmatismo 'praktikotasunak'	« Pragmatismoak irabazi zuen azkenik.»	(47)
sarraskizale 'triskantzazalea, odolzalea'	«Hiperespaziotik atera eta eta bere begien aurrean Ursa Maioriseko espazio-pirata sarraskizaleen gerra-untzia ikusi zuen.»	(18)
sastraka 'sasitza, kapardia'	«Basoa nahino irekia, garbia, zen. Sasi eta sastraka askorik ez.»	(39)
sen 'zentzua'	«Borrokarako sena galdu gabeko apur batzuk, Piarresen modukoak, egongo ziren dudarik gabe baina bazekien jakin...»	(69)
soilune 'zuhatzik gabeko gunea'	«Pagoz eta haritzez osatutako basoak inguratzen zuen untzia pausatuta zegoeneko soilunea .»	(38)
supituki 'bat-batean, itsumustuan'	«Kanpamendua panikoak hartutako eroetxe bilakatu zen supituki .»	(68)
tabu 'sineskeriazko debekua'	«Hegoalde hitz beldurgarria zen haranetako herrietan eta ahal zen guztietan bazterrean uzten zen horietakoa. Tabu kutsua zuen.»	(12)
talka-uhin 'topekazko uhina'	«Argi solidoaren talka-uhinak , hiperespazioan bidaiatzeko behar-beharrezkoa den nabigazio sistema nagusia hondatu zuen...»	(18)
tenore 'sasoia'	«Ez dakit aitona, zure herriaren patua aldatzeko tenorea iritsi den ala ez.»	(61)
trosta 'zaldien abiada bizia'	«Zaldia trosta arinean jarri zuen. Fardel baten moduan zebilen zelaren gainean saltoka...»	(51)
txingar 'gori-gori dagoen erregaia'	«Gaur arte, inoiz ez ditut txingar artean erretako patatak jan eta behatzak txupatzeko daude!»	(54)
urrubi 'urrama, ulua'	«Hontzak urrubi egiten zuen.»	(51)
uzta 'lurraren fruituen bilketa'	«"Guk nagusiei gure azienda eta uzten zati bat eman behar diegu beraiek gazteluan bizi daitezen plazerez inguratutik.»	(60)
xedatu 'erabaki'	«Gizonak asma Jainkoak xeda . Bihotzak bestela agintzen zion.»	(42)
zakur 'tiro egitekoa gakoa'	«Juliusek argi solidozko kainioiaren zakurra sakatu zuen.»	(23)
zanga 'luebakia'	«Bere lagunen aurpegi-espresioak ikustean jabetu zen Julius berea eta haien artean zegoen zangaz , arroilaz zehazkiago.»	(88)
zantzu 'aztarna, arrastoa'	«Arrisku zantzurik ez zegoen. Oso baketsu zirudien guztiak ordea.»	(39)
zela 'zaldiz ibiltzeko jarlekua'	«Fardel baten moduan zebilen zelaren gainean saltoka, zaldiaren ibilera-erritmora moldatu ezinik.»	(51)
zelada 'zelatada, maltzurkeria'	«Ez zebilen oso trankil, ilunabarreko argi traidorea zeladetarako oso egokia izan zitekeelako.»	(51)
zentzuten 'entzuten zuten'	«Giroa txit lasaia zen antza; alabaina, txorien kanturik ez zentzuten .»	(76)
zin 'juramentua, hitzarmena'	«Bai gogoratzen diat duela hogeit urte eginiko zina .»	(13)
zingola 'apaindu, lotzeko ehuna'	«...bazter batean zegoen xingola garraiatzaile bat seinalatuz.»	(99)
zintzilik 'eskegita, esekita'	«Mailu moduko tresna bati zerion suak erre omen zituen nire gizonak. Gerrian zintzilik daramazuna al da?»	(81)
zitxudean 'zeuden' (hikan)	«Ah zer ikara! Erreka ertzean zirkuluan zitxudean jarririk.»	(32)



zuhurtzia

'tentua, sotiltasuna'

«Ez zegoen beldurrez, **zuhurtzi** kontua besterik ez zen.»

(25)

zurrun

'tente, gogor'

«Biak zutik eta **zurrun** gelditu ziren ate ondoan, barrurago egin gabe, guztiari begira baina ezer ukitzen ausartzeke.»

(88)

zuzter

'sustrai'

«...kaperaren laranja kolorekoa eta **zuzterra** horia zeukaten, ale txikienek arraultze egosiak ziruditen.»

(40)